

IKASLEEN TXOKOA 101. ZENBAKIA

Lanbide heziketa

ANIMAZIO SOZIOKULTURALA ETA TURISTIKOA**Egileak:***Goian: Vinay Reymond, Uxue Larrañaga, Aritz Unchalo, Bárbara Chiara Ruiz, Amaia Lafuente, Iraia Erquizia.**Behean: Laxia Arakama, Beatriz Alvarado, Uxue Frutos.*

«Hautazkoa ez den bakardadea»

Hernaniko Udalean lan egiten dute Antton Aizkorreta eta Mertxe Gomez elkarrizketatu ditugu.

Zein da zuen lana Hernaniko udalean?

A: Zerbitzu sozialean gizarte langilea naiz eta hirugarren adina eta beste hainbat alorretan egiten dut lan.

M: Hirugarren adinekoen teknikaria naiz. Udaletxeko programa ezberdinetan egon naiz lanean, baina udal gobernua apustu bat egin zuen 3.en adinekoen beharrei erantzuna emateko teknikari postu bat sortuz eta hortan nabil azken urteotan.

Nola ikusten duzue 3.en adinekoen kolektiboa gizartean?

A: Hernanin hirugarren adineko pertsona gehienak 60 urtetik gorakoak dira, eta kopuruari erreparatuta pertsona dezente dira.

M: Aurreiritzi asko daude 3.en adineko kolektiboarekiko. Askotan pentsatzen dugu pertsona bat adin hauetara iristean egiten duen bakarra edo iloba zaintzea, kartetan jolastea... direla, baina hori ez da egia. Adineko jendea oso aktiboa da, ikasteko gogoia dute, bizitzaz disfrutatzen dute. Gaur egungo perfila ere asko aldatu da; diru aldetik baliabide gehiago izaten dituzte,

askoz formatuago daude, beste autonomia bat daukate.

Zer behar edo eskaera identifikatzen dituzue hirugarren adineko kolektiboen aldetik?

M: Hirugarren adinekoengan gauza berriak egiteko eta antolatze gogo handia nabaritzen dugu, zain eta prest egoten dira antolatzen den edozein ekintzatan parte hartzeko. Adibide garbia dugu Ttapa-ttapa proiektuan adinekoen partehartze kopurua.

Momentu honetan, esku-hartzerik ba al dago martxan Hernaniko Udalean? Zertan datza aipatu berri duzuen Ttapa-Ttapa proiektu hori?

M: "Ttapa-ttapa" proiektu berriarekin hasi berriak gara. Hernaniko Udalak Osakidetzarekin eta herriko hainbat elkarterekin aurrera eramaten duen programa da Ttapa-Ttapa. Horretarako, asteazkeneko goizeko 11etan bildu eta herriko 3 auzoetan ibilbide desberdinak egiteko aukera eskaintzen die 3.en adineko herritarrei. Ibilbide bakoitzak zailtasun maila desberdina du, adinekoei aukera emanaz nahi



duten ibilbidea aukeratzeko.

A: Programa honen helburua 3.adineko pertsonak etxean ez geratzea da, hau da, sozializazioa eta harremanak bultzatzea, hautazkoa ez den bakardadea uxatzeko.

Nola ikusten duzue 3.en adineko pertsonen etorkizuna?

M: Etorkizunera begira 3.en adinekoen bizi kalitatea hobetzea

espero dugu, hori lortzeko jarri ditugu hainbat proiektu martxan eta aurrerantzean ere lanean jarraituko dugu.

A: Anbulategiarekin elkarlanean aritzean ere hobekuntza ugari egon dira adineko pertsonengan. Alderdi psikologikoari ere merezi duen garrantzia ematen zaio eta laguntza behar duen orori laguntza eskaintzeko prest gaude.

Zerbait gehitzekorik?

M eta A: Gonbita luzatu nahi diegu herritarrei udalak zein auzo-elkarteek eskaintzen duten zerbitzuak ezagutzera, programa interesgarri asko daude herrian eta. Garrantzitsua da herriko zerbitzuen nondik-norakoak ezagutzera.

Egileak: Araitx Unchalo, Laxia Arakama eta Iraia Erquiza

Hernaniko Gizarte Berrikuntzako LHII 75. urteurrena

75 urte pasa dira dagoeneko Karmelo Labaka apaiz hernaniar gazteak Hernaniko Lanbide Heziketa ikastetxea sortu zuenetik.

HERNANI 75.URTEURRENA

1948.urtean fundatu zen Urbietan etorbidean eta 1961ean gaur egungo eraikinera lekualdatu zen. Gaur egun oraindik herritar askok EPO izenarekin (Escuela Profesional Obrera) ezagutzen dugun eraikin hori, aurretik Cinema Ideal deituriko zinema-areto bat zen. Azkenik, ikastetxeak Karmelo Labaka Lanbide Eskola izena hartu zuen, bere babesle eta sortzaile nagusiaren omenez.

Ikastetxea 13-15 urte bitar-

teko 15 ikaslek osatzen zuten ikastetxea garai hartan. Urte gutxiaren barruan eraikina txiki geratu zen eta 1962an berria inauguratu zen, 400 ikaslerentzako tokia eskainiz eraikin berrian. 2016 ikasturtean, Lanbide Heziketako zikloak Hernaniko Institututik bereizi egin ziren eta Gizarte Berrikuntzarako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua sortu zen. Gaur egun, lanbide heziketako ziklo desberdinak eskaintzen dira ikastetxean eta 181 ikasle igarotzen dira egunero bertatik. Hezkuntza eskain-



tza hauen artean honako hauek eskaintzen dira; Animazio Soziokultural eta Turistikoa, Fabrikazio Mekanikoko Diseinua, Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak, Mantentze-lan elektromekanikoetako teknika-

ria, Elementu Metalikoen Fabrikazioa, Mekanizazioa, Elektrizitate eta Elektronika.

2023ko martxoaren leian Ikastetxeak 75 betetzen ditu eta hau ospatzeko dagoeneko martxan dabilta ikastetxeo irakasle

zein ikasleak egun honek merezi duen jaialdi berezi bat antolatzen. Zorionak 75.urteurren, beste hainbeste ere izan dadila!

Egileak: Uxue Frutos, Bárbara Chiara Ruiz eta Amaia La Fuente

«Wave back, ongi etorri iraultzara»

Iraultza honek komunitate kontzientziatu bat sortu nahi du, etengabe mugitzen ari dena, ekimenak sortzen dituena, pertsonak eta ingurumena errespetatzen dituena, sentitzen duena, entzuten eta partekatzen duena, eta etorkizun hobe baten alde borrokatzen duena.

Zer da Wave Back? zer dakigu arropa jasangarriaz? 2021.urtean Julen Urtzegik eta Julene Iraolak arropa marka jasangarri bat sortzeari ekin zioten eta duela gutxi beraien lehenengo arropa bilduma atera dute.

Proiektu hau jasangarritasunerantz egin beharreko bide bat dela azpimarratzen dute, pixkanaka ohiturak aldatuz hobetze prozesu batean sartzeko. Beraien filosofiak ez du inor epaitu nahi, aldaketan sinisten laguntzea du helburu. Julen eta Julenek, euren bizitzak aldatzeko unea heldu zela sentitu eta proiektu berri honetan barne bildu ziren. Aldaketa prozesu bati hasiera eman zioten zoriontsu egingo zieten zerbaiten alde egiteko gogoia eta beraien balioak oinarri hartuta.

Arropa sortzerakoan ez zuten nahi zuten materiala eskaintzeko aukera ematen zien hornitzaileak bilatzen, ehuna, diseinua eta non ekoizten ziren aukeratu nahi zuten, jantziak bakarrak izateko. Horretarako, gertuko produkzioa eta langileen konpromezua oinarritzakoa da, baina lan luzea eskatzen du konfiantzazko kontaktua bilatzeak, hau ezagutzeak eta azkenik produktu aukeratzeak. Lehenengo tailerra Bartzelonan zegoen, eta hilabete batzuen ondoren prototipoak bidali zituzten. Aurreraxeago, lantegia aldatu eta ekoizpena Donostia-ra ekarri zuten. Orain momentuan, tailer honetan 5 emakume lan egiten dute.

Ohikoa den moduan prozesu honen oztoko nagusietako



«Produkzioaren zati bakoitzari eman beharreko balioa eman behar zaie»

Zerotik sortutako proiektu bat da, bietako inork ez baitzuen ordura arte modarekin zerikusirik zuen ezer ikasi, baina hau ez da oztopo bat izan. Orduetik prestakuntza etengabe danda eta oso gogor lan egiten dute Wave Back proiektuan aurrera jarraitu dezan.

Proiektuaren hasieran hainbat zailtasun izan zituzten arropa jasangarria sortzeko. Prozesu konplexua da, produkzioaren fase guztiak identifikatu eta zaindu behar dira, metodo egokiak aplikatzen direla ziurtatu eta produkzioaren zati bakoitzari eman beharreko balioa eman behar bait zaie. Bestalde, hornitzaileak ezagutu eta haiekin erlazio finko bat sortu behar da honen laguntza eta babes berezitasunak erasotzeko. Produktu bat jasangarria izan dadin, gauza asko hartu behar dira kontuan eta horietako bat ekodiseinua da. Bildumako ehunaren lehengaiak kotoi organikoak izango da eta tinteei dagokionez, naturalak erabiltzen dituzte, azala eta ingurumena kaltetu ez dezan.

«Proiektuarekiko ilusioak motibazioari indarra ematen zion»

bat finantzazioa izan zen, gauza asko egiteko asmoa zuten baina azkenean baliabideek asko mugatzen dute. Horrek ekartzen du desmotibazio eta motibazioaren balantza. Proiektu berri hau aurrera eramateko Julen eta Julenek aparteko lan propio bat zeukaten baina proiektuarekiko ilusioak motibazioari indarra ematen zion.


Arropa jasangarria sortu eta eskaintzeaz gain, hainbat esku-hartze egin nahi dituzte Wave Back proiektuari loturik, ingurugiroa zaindu eta merezi duen errespetua eskaintzeko. Orain, bigarren bilduma plazaratzea dute helburu nagusi baina betiere sentsibilizazioari eta sareen lanari fokua kendu gabe.

Wave Back proiektuaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero edota beraien arropa jasangarriaren bilduma ezagutu nahi izanez gero, www.wavebackproject.com web orrian aurkituko dituzte.

Egileak: Uxue Larrañaga, Beatriz Alvarado eta Vinay Reymond



Gurutzegrama



HORIZONTALA:

- 1. Atletismo Hernani pistaren izena
- 3. Agerreburu mendian dagoen ermita
- 5. Euskadiren lehendabiziko hizkuntza
- 8. Donostiako mendia Oriorekin konektatzen duena
- 10. Orona ondoan dagoen unibertsitatearen izena.
- 11. Itsasontziekin lotzen den Hernaniko auzo baten izena

BERTIKALA:

- 2. Hernaniko bertsolari baten abizena. Izena; Unai
- 3. Hernaniko kultur etxearen izena.
- 4. Hernani Lanbide Heziketako modulua, piezaren produkzioekin lotuta
- 6. Hernani Rugby kluba dagoen herria.
- 7. Urnieta ondoan dagoen mendiaren izena.
- 9. Bakailu txapelketa irabazi duen Hernaniko taberna.

- 11. PORTU
 - 10. MONDRAGON
 - 9. TXOKO
 - 8. IGELDO
 - 7. ADARRA
 - 6. HERNANI
 - 5. EUSKARA
 - 4. MEKANIZATUA
 - 3. BARBARA/BITERI
 - 2. AGIRRE
 - 1. SAGASTIALDE
- ERANTZUNAK:**

Egileak: Uxue Frutos eta Vinay Reymond